



## **Gipuzkoa Talentek bisita antolatu zuen Albaola Itsas Kultur Faktoriara, Gipuzkoako kostaldean**

30 profesional inguru euskal balea-arrantzaleen bandera-ontziaren barrenean sartu ziren

*2019ko ekaina.* Udaren atarian eta eguraldi zoragarria lagun, Gipuzkoa Talentek beste jarduera soziokultural bat antolatu zuen, joan den ekainaren 8an. Oraingoan, bisita Pasaiaiko badiara izan zen, zehazki Albaola Faktoriara, non parte hartu zuten profesionalak eta beren senideek bertatik bertara ikusi zituzten zer-nolako eraikuntza-lanak egiten ari diren 1565an hondoraturiko San Juan itsasontzi mitikoaren erreplika zehatza osatzeko.

Partaideak ontziz iritsi ziren museora, eta han gidari batek euskaldunen eta itsasoaren arteko harreman hertsia azaldu zien, bai eta marinela iraganen nola bizi ziren ere. Halaber, arotzak erreplika eraikitzeke baliatzen ari diren XVI. mendeko teknikak ikusi ahal izan zituzten.

Jardueran parte hartu zuten goi-mailako profesionalak Alemania, Txina, Estatu Batuak, Irlanda, Mexiko, Erresuma Batua, Dominikar Errepublikak eta Errusiakoak dira, hala nola Estatuaren gainerakokoak, eta Euskadira itzultakoak ere izan ziren tartean. Egun, denek garatzen dute beren lan-jarduera erakunde hauetako batean: Angulas Aguinaga, Basque Center On Cognition, Brain and Language (BCBL), CIC nanoGUNE, Ikor, NEM Solutions, Polymat eta Semi Zabala, EHU eta Vaillant Group.